

“Egungo legediarekin, edozeinek eros dezake laser bat eta osasun arlokoa ez den langile bat depilatzen jarri”



Laser bidezko depilazioa aurrerapen handia da, baina inoiz baino prestakuntza handiagoa behar da horretan jarduteko. Horixe da Alberto Morano doktorearen planteamendu nagusia; haren iritziz, medikuek bakarrik erabili behar lituzkete laser mota horiek eta estetika zentroetan eskaintzen dituzten zerbitzuak ere medikuek babestu eta berrikusi behar lituzkete. “Tratamendu ona eta segurua emateak kostu bat dauka. Badira oso eskaintza merkeak, baina kalitatea eta eraginkortasuna zalantzazkoak dira”, ohartarazten du Moranok, zeina irakasle aritzen baita unibertsitatean. Horrez gain, medikuntza Estetikoko Espainiako Elkarte zuzendaritza batzordeko kidea da.

Behin betiko depilazioa behin betikoa al da egiaz? Depilazio iraunkorra esan behar genuke. Horrek esan nahi du, zenbait saio egoki egin ondoren, ez dela ilerik sortuko zenbait urtetan. Eta saio kopuru hori zenbait faktoreren arabera da: larruazalaren kolorea, ilearen kolorea eta loditasuna, larruazalak duen melanina kantitatea, eta abar. Kausa hormonalen eraginik ez duten guneeetan, aski izango lirateke 5-6 saio depilazio egoki bat lortzeko. Hormonen eraginaren mende dauden guneeetan, baliteke dezentente saio gehiago behar izatea.

Zenbat hobetu dira depilatze teknikak azken urteetan? Aurrerapena ikusgarria izan da. Orain dela ia hogeitaz urte, laserrak nahiko oinarritzakoak ziren, mingarriak eta mantsoak, eta aurrez ez zitekeen jakin zer gertatuko zen. Paziente batzuei emaitza ona ematen zien eta beste batzuei ez. Gaur egun, laserrak seguruagoak dira, nahi gabeko ondorio gutxiago dituzte, ez dira mingarriak eta, batez ere, orain askoz hobeki dakigu zer gertatuko den. Gainera, orain ditugun laser batzuekin ez dago udan tratamendua zertan eten. Eguzkia hartzen jarraitu daiteke, neurrian betiere.

Zer-nolako aldea dago argi pultsatuaren eta laserraren artean? Biak dira fotodepilazioko sistemak, hau da, argiaren bidez depilatzeak. Uhin luzera eta argi sistema aldatzen dira. Laserrak oso zehatzak eta doiak dira. Gaitasuna dute inguruko ehuna babesteko eta “jopuntua” bakarrik berotzeko; kasu honetan, ilea eta haren ile folikulua. Argi Pultsatu Bizia darabilten sistemak (IPL ingelesez) ez dira hain zehatzak, baina, aldi berean, balioaniztunak dira, argi mota asko erabiltzeko aukera ematen dute eta.

Zer hartu behar dugu kontuan tratamendu bat hasi aurretik? Tratamenduaren emaitza optimizatzeko, pazienteak ez du argizariarekin edo pintzekin depilatu behar saioa hasi aurreko hiru edo lau asteetan, eta ilea tiratuz ateratzeko beste ezin sistema ere ez du erabili behar. Ileak beti larruazalaren mailan egon behar du. Egunean bertan edo aurreko egunean, pazienteak moztu egin behar ditu zangoetako biloak. Segurtasuna handiagoa izan dadin, ez da komeni aurreko egunetan eguzki asko hartu izatea eta saihestu egin behar dira ileari kolorea kentzeko kremak. Garrantzitsua da medikuari jakinaraztea zer-nolako sendagaiak hartzen ari garen, batzuek fotosentiberatasuna sor baitzakete eta ondorioen bat eragin.

Izaten al da arriskurik? Laserrak oso konplexuak dira, eta esku trebatuek erabili behar dituzte. Oso emaitza egokia eman dezakeen bezala, gerta daiteke nahi gabeko ondorio larriak sortzea ere. Erreduak izaten dira larrienak, hiperpigmentazioak edo hipopigmentazioak. Edonola ere, tratamendu horiek ematen ari den adituak irtenbidea eman diezaike une jakin batean sor daitezkeen ondorio horiei.

Nola saihestu daitezke? SEMEko espezialistek azpimarratzen dute medikuntza arloko profesionalak erabili behar dutela laser medikoa. Horretarako, araudi egokiak onartu behar lirateke.

Zer egin daiteke intrusismo profesionala geldiarazteko? Legedi argi bat behar da, erabilera medikoa duten laserren eta horien erabilera eremuen ingurukoa. Tratamendu mediko bat ez litzateke egin behar gimnasia ere egiten den zentroetan, edo ilea ere mozten duten zentroetan Egungo legediarekin, edozein enpresaburuk eros dezake laser bat eta osasun arlokoa ez den langile bat depilatzen jarri.

Publizitateak esaten du behin betiko depilazioa metodo kaltegabea dela. Tratamendu batek eraginkortasun objektiboa eta frogagarria du, aldaketa jakin batzuk sortzen dituelako. Aldaketa horiek ez baditugu zuzentzen dagoen tokira, behar bezalako neurriak hartuta, kontraindikazioen zalantzak argituko dizkigun informazioarekin eta historia klinikoarekin, onuragarria izan daitekeen bezala izan daiteke oso kaltegarria ere. Hortaz, sor daitezkeen arazoei aurre egiteko eta irtenbidea emateko gai den arduradun bat egon behar du, gutxienez.

Tratamendurik garestiena al da beti onena? Tratamendu ona, segurua eta fidagarria emateak kostu bat dauka. Badira oso eskaintza merkeak, baina ikertzen hasten zarenean, ikusten duzu zalantzazkoak direla kalitatea eta eraginkortasuna. Txinako merkatuak Europa hartu du eta prezio barrengarrietan eskaintzen ditu laserrak, baina non eginak diren ikusten duzunean, joan egiten zaizu horiek erosteko gogoak. Jende batek tratamendu batek duen kostuaren azpitik dabilzan prezioak eskaintzen ditu zenbaitetan baina ni ez nintzateke ausartuko tratamendu horiek hartzera.

Kalterik egin al diezaiokegu gure buruari behin betiko depilazioko txetresnekin? Ez, baina emaitza handirik ere ez dugu lortuko. Biloa ahuldu egiten dute desagerrarazi baino gehiago, eta gero laser bat egin nahi badugu, ileak ez du izango behar adinako funtsik energia xurgatzeko eta galdu egingo dugu eraginkortasuna.

Alberto Morano

SEME Medikuntza
Estetikoko Espainiako
Elkarteko kidea
eta komunikazio
arduraduna.